



# **Euskararen Plan Estrategikoa lantzeko parte-hartze prozesuko bigarren saioa** **2018-03-14**

## **DOKUMENTU HONETAN JASOTZEN DENA**

Dokumentu honetan honakoak jasotzen dira:

- [1.- Bigarren saioko egitaraua.](#)
- [2.- Lehen saioan taldeetan jasotako ekarpenak.](#)
- [3.- 2017ko urriaren 30ean Pintxo tertulian Euskaraldiaren inguruan jasotako ekarpenak.](#)

# **1.- Bigarren saioko egitaraua.**

Bigarren saioan aurreko saiotik urrats bat aurrera ematen ahaleginduko gara.

Egitasmo edo egitasmo-multzo nagusi batzuk hartu eta horiek sakontzen ahaleginduko gara: zer egiten da?, egiten den horren indargune eta ahulguneak, nola hobe dezakegu?... Honako hauek dira **aukeratu ditugun egitasmoak**:

**1.- Euskaraldia.** Euskararen egunarekin lotuta iaz azaroaren 30eko pintxo tertulian landu genuen gaia. Orain urrats bat aurrera egiten eta Bergaran egin dezakeguna gehiago zehazten ahaleginduko gara.

**2.- Ahozketasuna, berbeta informala, euskaldunen gaitasuna aberastea, euskal elebiduna helburu...**

**3.- Migrazioa, heldu erdaldunak, elebidun hartzaileak...:** Auzoko, Berriketan...

**4.- Eskolaz kanpoko mundua euskaraz:** proiektu berria, euskara, berdintasuna eta aniztasuna landuko duena; euskara maila apalekoentzako errefortzuak...

**5.- Lan-mundua.** Azken urteetan udaletik ez da landu baina garrantzi handikotzat jo den arloa da. Zer egin dezakegu??

## **2. Plan Estrategiko lantzeko lehen saioan jasotako ekarpenak.**

### **1.- Aurkeztutako datuez, datuen interpretazioaz...**

- Aurkezpena interesgarria izan da. Harritu gaituen datua izan da kale erabilera etxekoa baino handiagoa izatea, ez baikenuen horrelakorik espero (ulertu dugu zergatik den baina sorpresa izan da guretzat).
- Aurkezpenean azaldutako datu batzuk: etxeko hizkuntza, gurasoek seme-alabekin erabiltzen duten hizkuntza... Uste dugu umeek 2 urte dituztenean jasotzen den errealitatea aldatu egiten dela umeak handitzen doazen heinean.
- Zergatik eta ze momentutan pasatzen dira umeak gaztelerara?. Hipotesi bat: guraso gazteek euskara gehiago egitearen arrazoia ez ote da umeak txikiak izatea? Ume txikiak direnean euskaraz, baina umeak hazten doazen neurrian berriro gaztelaniara.
- Ez dogu ulertzen ama hizkuntza euskara daukaten umeak zergatik jotzen duten bat-batean erdarara. Galdera-ikur handi bat

### **2. Lehentasunezko egitasmoak:**

- Denak dira garrantzitsuak, hala ere, eskolaz kanpoko arloa eta Berbekin programa nabarmendu dira. Dena dela, denak lotuta daude eta garrantzitsua izango litzateke koherentzia bat, marko orokor bat ematea guztiei.
- Nabarmendu diren egitasmo nagusiak *Euskaraldia* eta eskolaz kanpoko mundua izan dira. Baina eskoletako lanketa (Bebekin) eta euskara maila apaleko haur eta gazteentzat indargarriak ere aipatu dira.
- Honako hauek aipatu dira: Eskolaz kanpoko ekintzak, Eskolako guraso batzordeak (eskola bakoitzeko motoreak dira), eta pertsona erreferenteak, euskaraz bizi diren erreferenteak.
- Lehentasanak. Lan-munduari garrantzia eman beharko litzaioke. Ikasketa arloan asko aurreratu da baita unibertsitate mailan ere baina gero lanean erdal mundu batean murgiltzen gara eta egoera hori gainditu beharra dago. Lan-munduan, gainera, hizkera formala eta informala, biak erabiltzen dira.

### **3.- Euskaraldia: erabilera, euskaldunon proaktibotasuna.**

- Euskaldunon proaktibotasuna. Lotsak albora laga eta euskara erabiltzea da gakoa: lehen hitza euskaraz egitea, gutxi dakitenei ere euskaraz egitea...
- Elebidun hartzaileak asko dira eta gainera eurengana euskara gerturatzea asko eskertzen dute.
- Adin tarte batzuetan etorkinen portzentaiak esanguratsuak dira baina, hala ere, erabileraren (edo erabilera ezaren) ardura bertakoena da, euskaldunona. Guk egin behar dugu euskaraz; guk euskaraz egiten badugu eurak beharra sentituko dute eta euskaraz ikastera bultzatuko ditugu.
- Elkarrizketa mistoak oso zailak egiten zaizkigu euskaldunoi. 11 egunez konpromisoa hartu eta mantentzeko gai izango garela uste dugu baina 11 egun horiek amaitutakoan... Gai izango bagina hori egiteko eta umeak ere bide horretan jartzeko erabilerak gora egingo luke zalantzarik gabe, gaur egun gaztelania nagusitzen baita horrelako elkarrizketetan.

#### **4.- Migrazioa, Auzoko, euskara maila apalekoak...**

- 2001era arte berreskuratze-prozesua ikusten bazen, pentsa dezakegu jakin izan dugula 60ko hamarkadan egon zen inmigrazioari aurre egiten. Oraingo inmigrazioaren aurrean atzera begiratu beharko genuke lehen ondo egin genituenak kontuan hartzeko.
- Etorकिनen inguruan komentatu dugu zaila dela beraiengana iristea. Agian ez dugula ezagutzen beraiek nola antolatzen diren, non elkartzen diren... eta hori aztertu beharko genukeela. Honekin lotuta, San Martin ikastetxean izan duten egoera aipatu zen. San Martinek Guraso Euskara batzordeak jende berria lortzeko deia egin zuen eta uste zuen errazago gerturatuko zirela euskaldunak eta aldiz 6-7 kanpotarrek azaldu dute interesa eta jarrera oso ona eta euskara ikasteko gogoia. Saiatu dira beraiekin euskara eskolak lotzen haurrak ikastetxean dauden orduetan baina azkenean ez da posible izan gutxieneko taldea 8koa delako eta 7 daudelako. Etorकिनekin lotuta EPA ere irten da. EPAra etorkinak gerturatzen omen dira baina bertan eskolak gaztelaraz ei dira. Euskara ikasteko aukera ez dagoela uste da eta ezta beste ikasgaiak (historia, matematika...) euskaraz ikasi ahal izatekoa ere. Etorकिनak euskaltegira ez hurbiltzearen arrazoi nagusia agian kurtso hasieran ordaindu beharreko matrikula dela aipatu zen. Nahiz eta tarifa soziala eta epeka ordaintzeko aukera egon, beraientzat arazoa izan daitekeela. Beraz, honi ere buelta batzuk eman beharko zaizkiola.
- Auzoko: Etorकिनen beharretan euskarak ez du inolako lehentasunik, beraz, zaila izango da Auzokora edo beste edozein programatar hurbiltzea etorkinak. Gu joan beharko ginatke etorkinak dauden lekura (adibidez, San Martinen aipatu duten gurasoentzako euskara ikastaroa, lan egiten duten tokietan euskarara hurbildu...).
- Etorकिनekin lotuta, zalantza edo hausnarketa izan da sozializazioaren inguruan: zergatik ez dira etorkinak gure gizartean integratzen? Arrazoi bat ekonomikoa izan daiteke, haurrentzako ekintzek koste bat dute eta beraiek ezin dituzte ordaindu. Hori horrela bono sozialak, diru-laguntzak edo antzeko neurriak hartu beharko lituzke administrazioak, sozializaziorik gabe ez dagoelako euskalduntzerik. Beste arrazoi batzuk ere badaudela aipatu da: kulturalak, adibidez.
- Errefortzuei buelta bat: orain euskara maila apalekoak euren inguru naturaletik ateratzen dira eta nolabaiteko ghettoak sortzen dira eta batzuentzat ez da bizipen positiboa. Bereiztu beharrean, nahastu egin beharko lirateke euskara maila oneko umeein erabilera altuko ekintzetan.

#### **3.- Mutilen erabilera apala: kirola, erreferenteak, hedabideak eta sare sozialak.**

- Ez dakigu zein den horren arrazoia. Ez da bakarrik hizkuntzarekin gertatzen, neskak aktiboagoak dira gauza guztietan, nesken parte hartzea ere altuagoa da edozein ekintza edo jardueratan. Mutilak futbolaren inguruan mugitzen dira batez ere (entrenamenduak, partiduak ikusi herrian bertan eta telebistan, Anoetara joan...). Mutilen erreferenteak ere futbolaren ingurukoak dira (gaur egun, dena den, erreferente horietako batzuk euskararen alde egiten dute eta hori garrantzitsua da).
- Gaztelaniara pasatzen direnak mutilak izateak eramaten gaitu pentsatzera futbolak eta zenbait kirolek eragina dutela hizkuntza erabilera eta ohituretan.. izan ere, neskek eskolaz kanpoko beste ekintza batzuk aukeratzen dituzte eta euskara gehiago erabiltzen dute; beraz, hor eragin beharra badagoela ikusten dugu.
- Mutil gazteen artean dagoen erabilera baxuaren aurrean kirolak eta bereziki futbolak eragin handia izan dezaketela aipatu da. Baita ere komunikabideek eta gazteek

denbora asko pasatzen duten Interneteko guneek, sare sozialek eta abarrek ere eragin handia dutela ikusten da. Eta gazteek zaharragoen ereduak jarraitzen dituztela ere esan da. Honi aurre egiteko, gazte koadrilen artean eusleen ariketa egitearen aukera komentatu da. Azkenik, haur eta gazteen aisialdi esparrua oso garrantzitsua dela esan da eta hemen gune publikoak eta pribatuak bereizi behar direla. Gune/ekintza publikoetan Udalak esku hartze zuzena izan behar duela eta pribatuetan lankidetzeta eta proposamenak/gomendioak... landu.

- Aipatu da eragina ez dela bakarrik kirol horretan erabiltzen den hizkuntzarena, badagoela beste faktore bat eta hau erreferenteena da. Kirolarekin lotutako euron erreferenteak gaztelaniaz mintzatzen dira.

#### **4. Eskolaz kanpoko mundua, emozio positiboak, mundu ludikoa...**

- Eskolako hizkuntza ari da bihurtzen euskara eta ezinbestekoa da ondo pasatzearekin eta emozio positiboekin lortzea. Dirua inbertitu behar da horretan.
- Eskola kirola eta bestelako eskolaz kanpokoak: Udalak jarrai dezala eskolaz kanpokoekin egiten ari denarekin.
- Futbola eta futbol mundua. Umeak txikiak direnean asko zaintzen da entrenatzailea euskalduna izatea baina adin batetik aurrera ez da zaintzen. Hainbat arrazoigatik (entrenatzailea borondatez dabilela, entrenadorea ona dela...) onartu egiten da erdaraz izatea. Ez litzateke onartu behar. Bestalde, entrenamendua bera euskaraz bideratze hutsa ez da nahikoa: entrenamendu-jardunetik kanpo ere entrenatzaileak eredu izan behar du, umeak horretaz ohartzen dira eta.
- Tabernetan euskal musika jartzea garrantzitsua iruditzen zaigu.

#### **5.- Sare sozialak, hedabideak, ingurune digitala...**

- Sare sozialak, telebista: Ordu asko ematen dituzte gazteak sare sozialetan, youtuben... Hor ere erreferente euskaldunak ezin bestekoak dira eta dirua inbertitu beharko luke Jaurlaritzak gai horretan, udalerrinari urrun gelditzen zaion kontua baita.
- Komunikabideak: zergatik dira gaztelaniazko kateak hain erakargarriak eta zer dugu faltan euskarazko hedabideetan gazteak ez engantxatzeko?
- Sare sozial gehienak gaztelaniaz dira eta erreferente izan litezkeen hainbat gazte euskaldunek ere gaztelaniaz elikatzen dituzte gaztelaniaz dirua lortzen dutelako.
- Ingurune digitala euskaraz izatea bultzatu, gazteen ingurune naturala delako. Euskaraz dauden baliabideak erabiltzeari eman beharko litzaioke lehentasuna.
- Hedabideetako erreferenteak kanpokoak izaten dira eta horrek dakar nerabeak bere nortasuna indartu nahi duenean, beste hizkuntza bat erabiltzen hastea eta gaztelaniara jotzea.

## **6.- Sentiberatzea, gurasoak eredu...**

- Eskaera sustatu beharra dago. Kontzientzia handiko gurasoek ere lasai asko apuntatzen dituzte euren seme-alabak erdarazko jardueretan eta ez dute eskatzen jarduera horiek euskaraz izatea.
- Etxeko erabileran eman den jaitsieraren inguruan esan da gurasoek zer esan handia dutela. Etxean gurasoak erabaki behar dutela zein hizkuntzatan aritu. Nahiz eta batzuetan gaztetxoek kaletik gaztelerarako joera ekarri etxean gurasoak izan behar dutela etxeko hizkuntza ezarriko dutenak eta noski eredu izango direnak. Baina aipatu da era berean, guraso asko ez daudela kontzientziatuta gai honekin eta beraiek direla lehenengoak gaztelerara jotzen dutenak edo haurrak hazten joan ahala hizkuntzan gutxiago eragiten dutenak. Egoera honen aurrean, gurasoekin lanketa handia egiteko beharra sumatzen da, kontzientzia landu.
- Hutsuneen artean, behin eta berriz komentatu denez haur eta gazteek helduen eredu jarraitzen dutela, hauekin lanketa egin edo egitasmoren bat bideratzeko beharra aipatu da.
- Kontzientzia: Lehen derrigortzea bazen estrategia, orain zein izan daiteke horren ordezkoa? Familian, eskolan transmititzea euskara dela gure hizkuntza, ez gaztelania eta hizkuntza gutxitua izanik, gure babesa behar duela

## **7.- Euskal elebiduna helburu: ahozketasuna, hizkera informala, erregistroak, hizkuntza kalitatea.**

- Gazteei erregistro informalago bat irakatsiz gero, agian gehiago animatuko lirateke euskaraz egitera lagun artean; adibidez, hitanoa.
- Gazteentzako erregistro informala. Lehen hika-eta gehiago erabiltzen zen eta horrek erregistro ez formalerako aukera gehiago ematen zuen. Gaur gabezia dugu erregistro ez formalean eta hori bultzatu beharko litzateke: euren arteko harremanetarako batua ez den zeozer, batua eskolarekin eta autoridade kontuekin lotzen dute eta.
- Euskal elebidunak sortzea: euskara naturaltasunez eta erraztasunez erabiliko duten hizkuntza izatea, beraien komunikazioan eroso sentiaraziko dien hizkuntza euskara izatea, gaztelaniaren gainetik. Horretarako, ezinbestekoa da hitz egitea, ahozketasunari lekua egitea. BERBEKIN programa.
- Aipatu da baita orokorrean hizkuntzen kalitatea krisian dagoela leku guztietan eta horri ere heldu beharko geniokeela.

## **8.- Lan-mundua.**

- Lan mundua ere oso garrantzitsua. Helduok ordu asko ematen ditugu lanean eta helduak umeen eta gazteen eredu izatea nahi badugu, lan-mundua euskalduntzeak berebiziko garrantzia dauka eta horrek ere inbertsioa eskatzen du.
- Helduak: helduen kasuan garbi ikusten da, lan mundua eralduna dela eta, ondorioz, bertan garatzen eta sortzen diren harremanak ere gaztelaniazkoak direla.

## **9. Planaren komunikazioa, prestigioatzea...**

- Iradokizuna. Hurrengo batean, egoeraren inguruko informazioa zabaldu behar denean, modu errazago batean egitea; txostenaren ordeztu, bideoa baten bitartez adibidez. Horrek erraztuko luke partaideen ulermena eta atsegina izango litzateke.
- Euskara prestigioatzeko mezu egokiak zabaldu behar dira, euskara eta euskalgintza zokoratuta daude gaur egun. Feminismoa ere halaxe egon da urtetan eta jakin izan du buelta ematen.

### **3. 2017ko urriaren 30ean Pintxo tertulian Euskaraldiaren inguruan jasotako ekarpenak.**

Ondorengo galderak hitz egiten hasteko abiapuntua dira, baina beste edozein motatako ekarpenak ere egin ditzakezue. Dena den, galderen erantzunak edo ekarpenak zuen esparruari lotutakoak izan daitezzen eskatu nahi dizuegu.

#### **1. Bideragarritasuna: Bideragarria iruditzen zaizue proiektua? Zeintzuk izan daitezke zailtasunak? Eta aldeko faktoreak?**

- Proiektua egokia da, bideragarria da baina aurrez girotu beharra dago.
- Masiboa izatea garrantzitsua da, denok batera aritzea. Ekimen orokorra izango denez errazagoa izango da.
- 11 egunetan txapa eramanda badakizu zeinek dakien eta zeinek ez, eta zein jarrera hartu. Ahobizi eta belarriprestak identifikatzeak aurretik geneuzkan ohiturak aldatzeko aukera eskainiko digu.
- Txapa eraginkorra eta lagungarria izan daiteke, bistara dago eta konpromisoa eskatzen du
- Ezin da planteatu hizkuntza ohiturak aldatzeko ideia moduan baizik eta jolas modura, erronka modura... (ondo pasatzeko, dibertitzeko)
- Estresantea izan daiteke ahobizientzat, ez dutelako bere burua gai ikusiko esparru guztietan euskaraz aritzeko. Mezua ondo azaldu beharko da (lasaitasunez, errespetuz... aritzea) ze ahobiziek mugak izan ditzakegu: besteak erdaraz erantzuten badit ere, denekin, dena euskaraz egiteko gai izango ote naiz...
- Zaila da erdaraz egiten duen batekin euskaraz aritzea. Kanpaina batean barruan txapa bat jartzeak erraztu egiten du hori. Kanpaina amaitutakoan ez desinflatzea, mantentzea da lortu behar dena.
- Izenematea kosta egingo zaigu, konpromisoa eskatzen du eta horrek atzera botatzen zaitu.
- Belarriprestak lortzeko ahalegin berezia egin beharko da.

#### **2. Aktibazioa: Nortzuk aktibatu beharko lirateke? Zer egin daiteke pertsona horiek aktibatuzeko?**

- Herria aktibatu beharra dago baina hori nola egin? Hor dago zailtasuna
- Jarrera pertsonala sustatu behar dugu baina enpresa eta entitateen konpromisoa lortu. Bide exekutiboa eta soziala erabili behar dira aldi berean.
- Zerbitzu-enpresak oso garrantzitsuak dira (gasolindegia, bankuak, anbulatorio...) ahozko harreman ugari ematen direlako.
- Jubilatuek aktibatu behar dira (San Joxepe).
- Gurasoak eta 16 urtetik gorako ikaslea aktibatu beharko dira ikastetxeetatik. Hamasei urtetik beharekoei ere zabaltzeko aukera izan beharko genuke, 12-16 urte bitartekoei behintzat (izen horrekin ez bada beste izen batekin). Batxikoak ikusten badituzte txaparekin eredia jarraituko dute. Erronka bezala planteatu: hamasei urte

betetzen dituzuenean izango duzue txapa baina egin ahalegina aurtan ere (beste lelo bat presta dezake eskolak, kateorrazekin jartzeko...).

3. **Komunikazioa:** Zeintzuk izan daitezke biderik egokienak ekimenaren berri emateko? Herri mailan egingo den komunikazioa nahiko izango da edo zerbait espezifikoa planteatu beharko litzateke?

- Banaka bisitatu beharko dira enpresa, entitateak, elkarteak, dendak...: gutunak bidali, telefono deiak egin eta hitzordua adostu.
- Ikastetxeetan ikasturte hasierako guraso bilerak aprobetxatu behar dira kanpaina egiteko eta izen emateko paperen eskaintza egiteko, taldean, konpromezua hartzeko aukera egokia. Bestela, banaka joan behar bazara tokiren batera izena ematera erraza da aitzakiak topatzea ez egiteko.
- Komunikabide orokorrak erabili behar dira (telebista, irratia, Goiena...)
- Batxiko gazteek izena eman dezaten eurentzat erreferente izan daitekeen norbaitek eman beharko die mezua (Rezusta, Gaizka Garitano, Asier Garitano...).
- Hainbat herritarrek ez dute informazio orria ulertuko batuan idatzita dagoelako, agian informazioa elebitan prestatu beharko dugu. Alfabetatu gabeko ahobiz beteta dago herria eta belarripresta izateko ere ondo ulertu behar da mezua.

4. **Ekintzak:** Zeintzuk izan daitezke aurrera eraman beharreko ekintzak?

- Logoa: Whatsappeko perfilean logoa agertzeko kanpaina egin beharko genuke. E-mailetakoa sinaduretan logoa sartu. Enpresa, denda, etab. etako sarreretan logoa ipintzeko erraztasunak eman, jendeak dinamika ondo identifikatu dezan.
- Bideoa whatsapppean bidaltzeko
- Adin eta sektore desberdinentzako gauza diferenteak egin beharko dira.
- Bideo-lehiaketaren bat gazteen artean.
- Kontzertuak gazteentzat
- Hitzaldiak antolatzea ez da eraginkorra jendea ez delako joaten.
- “Nola animatu jendea?”. Horixe da klabea. Ahalik eta sare zabalena lortu behar da. Jendeak bere burua islatuta ikusi behar du sartzera animatzeko.
- Ezin da etenik egon aurtengo euskararen egunean egitasmoa aurkeztetik datorren urteko “11egun euskaraz bitartera”. Sasoi konkretuetan, jende asko mugitzen den ekintzetan, gauzak antolatu behar dira (Bergarako jaietan, adibidez, barraketan musika zentralizatua eta kuñak tartekatu...; Bedelkarreko desfileetan ere gogorarazi egitasmoa; Gabonetako kontzertuan, musika bandaren kontzertuetan... gogorarazi, eta logoa jarri)

5. **Baliabideak:** Zeren premia aurreikusten duzue egitasmoa aurrera eramateko?

- Aurrekontua eta baliabideak
- Arrolako batzordeak eratzea urtean zehar lan egiteko, esaterako lan mundukoa (jendea kargatu barik eta bilera edo komunikazio bide informalak erabilita –tabernan geratuta, whatsapp...–)



- QR kodeak jarri bazterretan “erabili euskara”
- Kartelak, sare sozialak, whatsapp eta ahoz ahokoa erabili beharko dira. Whatsapp xelebreren bat sortu daiteke. Komunikazio arloko jendearekin lan beharko litzateke.

6. **Formazioa**: Formazio-premiarik aurreikusten duzue? Zer nolako formazioa?